



BLAS DE OTERO – ÁNGELA FIGUERA XIV. POESIA LEHIAKETA

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak-**
Egilea / Autor: **Angel Erro**
Saila / Colección: Poesia, 46
ISBN / EAN: 978-84-9109-845-4
Salneurria / Precio: 9,50 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 64
Formatua / Formato: 130 X 205 mm
Materia: Poesia

Lana / La obra

Esku artean duzun hau poema liburu bat da; bertako hitzen dentsitatea, beharrik, altua izan daiteke, beraz, eskuztatze artatsua eskatzen du. Ez pentsa, halere, egiteko zail edo adituentsakoa denik. Hori bai, denbora behar izaten da, azkenean, poesiak hitza denboran geldiaraztea baitakar, amaikor eta materiagabea den denbora gauzatzea, biderkatzea, desaktibatzea, menturaz beheko adibide honetan bezala:

*Argazki honetan ama haurra zen, begira
zein babesgabe dirudien,
orain bezala, zein beldur, ez dakiela
bizitzak nora eramanen duen,
nork besarkatuko.
Nik nahiko nuke lasaitu, esan,
ez dadila beldur (eskutik heldu),
ezagutzen dudala haren etorkizuna,
non ni ari natzaion itxaroten.*

Egilea / Autor:

Angel Erro (Burlata, 1978). Zuzenbidean eta Euskal Filologian lizentziaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, hurrenez hurren. *Eta harkadian ni* (Elkarlanean, 2002) eta *Gorputzeko Humoreak* (Alberdania, 2005) poesia liburuen egilea da, halaber *Lerro etena* (Elkar, 2019) dietarioa ere eman du argitara. Haren obra hainbat aldizkari, liburu kolektibo eta antologiatan ere jasoa izan da. Idatzizko prentsan eta irratian kolaborazioak egiten ditu; bere arloa kultur eta literatur gaiak dira bereziki. Zenbait egile itzuli ditu hala euskarara nola gaztelaniara.

